

Indarrean dagoan aurrekontu ekitaldiaren barruan, kirol erakundeek urteko kirol ekintzak burutzeko Mungiako Udalak emongo dituan diru-laguntzak arautzeko deialdia. (2025)	Convocatoria de subvenciones del Ayuntamiento de Mungia destinadas a entidades deportivas para su actividad anual dentro del ejercicio presupuestario en vigor. (2025)
<u>Diru-laguntzaren esparrua eta ildoak</u>	<u>Ámbitos y líneas de subvención</u>
- Kirola sustatzeko urteko egitarauak. - Kirola, era guztietakoa eta modu guztietan, garatzeko urteko egitarauak. - Kirol arloko beste jarduera batzuk, urtean zehar era jarraituan antolatzen diranak.	- Programas de anuales dirigidos a la promoción del deporte. - Programas anuales de desarrollo del deporte en cualquiera de sus facetas y manifestaciones - Otras actividades deportivas desarrolladas de forma estable y continuada durante el año.
<u>Eskatzaileak</u>	<u>Solicitantes</u>
- Aurreko atalean aitatutako edozein jarduera Mungian burutu gura dauen edozein alkartek eskatu ahal izango dau dirulaguntza. Jarduera Mungiako udalerrian 2024/2025 denboraldian (2024ko irailaren 1etik 2025eko abuztuaren 31ra arte) burutua izan behar da. - Proposatutako egitarauak burutzeko, lehentasuna emongo jako Mungiari; edo, behintzat, udalerri honen garapen soziokulturalerako interesgarriak izan beharko dabe proiektuok. - Diru-laguntza jasoten daben alkarte guztiek Udalaren logoa jarri beharko dabe beti agirian antolatzen dabezan jarduera guztien publizitatean. - Alkarteek eta erakundeek irabazi asmo bakoak izan beharko dabe. Alkarteok Eusko Jaurlaritzako Alkarteen Erregistroan eta Mungiako Udalekoan izena emonda egon beharko dabe. - Alkarteek aurkezten dabezan programa edota jarduerak Mungiako Udalaren urteko kirol-programen barruan txertatu behar dira, beraz, aldez aurretik adostu beharko dira programak erakunde horregaz, indarrean dagoan aurrekontu-ekitaldiaren barruan udalerrian eskainiko diran kirol-programa guztien arteko koordinazino egokia lortzeko.	- Podrá solicitar subvención cualquier asociación interesada en promover en Mungia las actividades descritas en el apartado anterior y realizadas dentro del municipio de Mungia, en la temporada 2024/2025 (1 de septiembre de 2024 a 31 de agosto de 2025). - Los programas propuestos priorizarán el ámbito local, o habrán de tener interés para el desarrollo sociocultural del municipio. - Todas las asociaciones que reciban subvención, deberán llevar visible el logo del Ayuntamiento en toda la publicidad de sus actividades. - Las asociaciones y las entidades deberán ser asociaciones o entidades sin ánimo de lucro. Deberán estar inscritas en el Registro de Asociaciones del Gobierno Vasco y del Ayuntamiento de Mungia. - Los programas o actividades que las Asociaciones presenten en esta convocatoria deberán integrarse dentro de la programación deportiva anual del Ayuntamiento de Mungia, por lo cual serán acordadas previamente con éste, para conseguir una coordinación global entre los diferentes programas deportivos subvencionados que se desarrollen en el ejercicio presupuestario en vigor en Mungia.
<u>Eskabideak eta aurkeztu beharreko dokumentazinoa</u>	<u>Solicitudes y documentación a aportar</u>
- Eskabideak aurkezteko epea 10 egun baliodunekoa da, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean zenbatzen hasita. - Eskaerak eskabide normalizatu eta espezifikoarekin bidez aurkeztuko dira, eta Mungiako Udalaren “Egoitza Elektronikoaren”	- El plazo de presentación de las solicitudes es de 10 días hábiles a contar desde el día siguiente a la publicación de esta convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia. - Las solicitudes se presentarán mediante instancia normalizada y específica, que se entregará por medio de la “Sede Electrónica” del Ayuntamiento

bidez emango dira edo, ezpabere, Administrazio Prozedurako Legeak ezarritako bideak erabiltza; beti bere, deialdiak jarritako epe barruan.	de Mungia o a través de los mecanismos previstos en la Ley de Procedimiento Administrativo, y ello siempre dentro de los plazos de la convocatoria.
3. Eskabideak dokumentazio orokor batez aurkeztu beharko dira (Erakunde eskatzailea deskribatuko dauena), bai eta dokumentazio espezifiko batez ere (dirulaguntza emateko baloratuko diren jardura-eremuak deskribatuko dabezenak).	3. Las instancias deberán presentarse con una documentación general, descriptiva de la Entidad solicitante y una documentación específica, descriptiva de las distintas áreas de actuación valorables para la subvención a conceder
4. Dokumentazioa deialdi honen eranskinetan proposatutako formatuan aurkeztu beharko da, eta ez dira formatu desberdinak onartuko.	4. La documentación se deberá presentar en el formato propuesto en los anexos a la presente convocatoria, no aceptándose distintos formatos.
5. Eskabide-orriagaz batera aurkeztu beharreko dokumentazio orokorra aurkeztu ezean edo eskabideak akatsen bat euki ezker, eskatzaile horri 5 egun balioduneko epea emongo jako akats edo hutsok zuzentzeko. Ez da onartuko epez kanpo aurkeztutako dokumentazio berezia, ezta eranskinean proposatutakoaz bestelako formatu batean ere.	5. Si a la solicitud no se adjuntase la documentación general anteriormente señalada o la presentada adoleciera de algún defecto formal, se requerirá al interesado para que en el plazo de 5 días hábiles, subsane las omisiones. No se admitirá la documentación específica presentada fuera del plazo, ni en un formato diferente al propuesto en el anexo.
DOKUMENTAZINO OROKORRA (eranskin 1)	DOCUMENTACIÓN GENERAL (anexo 1)
Eskabide-orri ofiziala.	Instancia oficial.
Eskabidea sinatu dauenaren NANaren fotokopia.	Fotocopia del DNI de identidad de la persona firmante de la solicitud.
Alkartearen Identifikazio Fiskalerako Zenbakiaren fotokopia.	Fotocopia del número de identificación fiscal de la Asociación.
Diruz laguntzeko eskatzen dan jardura horregaz ezelango irabazi-asmorik ez dagoala ziurtatzen dauen zinpeko aitortpena (eskatzaileak eginda).	Declaración jurada sobre solicitudes de subvención formuladas ante otros departamentos, instituciones, organismos, o, en su caso, de las que estuvieran otorgadas.
Beste sail, erakunde edo instituzino batzuei eskatutako edo horreetatik jasotako dirulaguntzen ganeke zinpeko aitortpena.	Declaración jurada de la persona solicitante de no perseguir con el desarrollo de la actividad finalidad lucrativa alguna.
Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean eukitea ziurtatzen dauen agiria.	Certificación de estar al corriente de las obligaciones tributarias con Hacienda y con la Seguridad Social.
Entitate eskatzaileak garatutako jardueren memoria-proiektua.	Memoria-Proyecto de las actividades desarrolladas por la Entidad solicitante.
Entitate eskatzaileak garatutako jardueren aurrekontu zehatza, kontzeptuka banatuta. Bertan diru-sarrerak (hor sartuko dira beste erakunde batzuetatik edo beste edonondik jasotakoak edo aurreikusitakoak bere) eta aurreikusitako gastuak zehaztu beharko dira.	Presupuesto detallado de las actividades desarrolladas por la Entidad solicitante, determinado por conceptos, donde se hagan constar los ingresos, incluyendo en éstos el de las subvenciones percibidas o previstas de otros Organismos e Instituciones; así como los de cualquier otra índole y los gastos previstos.
DOKUMENTAZINO BEREZIA BALORAGARRIA (eranskin 2)	DOCUMENTACIÓN ESPECÍFICA VALORABLE (anexo 2)
Jagokan Federazioak edo eskaria egiten dauen kirol erakundearen gainetik dagoan estamentu ofizialak egiaztatutako zerrenda, hau da, jokalarien eta kuadru teknikoaren	Listados certificados por la federación correspondiente (o estamento oficial de ámbito superior al de la entidad deportiva solicitante) de

datuak (izen-abizenak eta NAN zk.) agertzen dituana. Horren ganera, aipatutako kide bakoitzari buruzko informazioa emango da, horretarako proposatutako zutabeetan, honako kontzeptu hauei buruz: erroldatze-udalerrria, generoa, desgaitasun-egoera (ziurtatuko da), halakorik balego, eta kide aktibo-beteranoaren izaera. Zerrenda horiek Erakundeko talde bakoitzari dagozkio, eta termino ofizialaren arabera identifikatu beharko dira.	los datos de los y las jugadoras y cuadro técnico (nombre, apellidos, y DNI). Además se informará, en las columnas propuestas al efecto, de la población de empadronamiento, del género, de la condición de discapacidad (se certificará), si la hubiere, y de la condición de miembro activo-veterano de cada uno de los miembros citados. Los listado corresponderán a cada uno de los equipos o grupos de la Entidad, que deberán ir identificados de acuerdo al término oficial.
Jagokon federazioak edo eskaria egiten dauen kirol erakundearen gainetik dagoan estamentu ofizialak egindako egiaztagiria, hain zuzen bere, jokalarien lizentziatarako eta kuadru teknikorako egindako gastuen barri emoten dauena.	Certificado emitido por la federación correspondiente o estamento oficial de ámbito superior al de la entidad deportiva solicitante de los gastos realizados por la entidad solicitante en concepto de licencias de los y las jugadoras y cuadro técnico.
Herriko ikastetxeak ziurtatutako memoria, ikastetxe horietan kirola sustatzeko programa espezifikokoak garatu dauzela egiaztatzen dauena, jasotako programa eta/edo laguntza mota zehaztuz.	Memoria certificada por el centro escolar del municipio por haber desarrollado programas específicos para el fomento del deporte en dichos centros escolares, en la que se especifique el tipo de programa y/o ayuda recibida.
Entitateko Zuzendaritza Batzordearen osaerari buruzko dokumentazio ofizialaren ziurtagiria, bertan emakumeak daudela justifikatzeko.	Certificado de la documentación oficial de la composición de la Junta Directiva de la Entidad a los efectos de justificar la presencia de mujeres en ella.
Entitateak Mungiatik kanpoko instalazioetan parte hartu behar izan duen jarduera orokorraren deskribapena.	Descripción de la actividad general en la que la entidad ha debido participar en instalaciones fuera de Mungia.
Organo eskudunak ahalmena izango dau aurkeztutako dokumentazioaren ganean egoki deritxon beste egiaztapen egiteko eta jagokozan neurriak aplikatzeko dokumentu horreek okerrak edo guztiz osotu bakoak badira.	El Órgano competente podrá realizar las comprobaciones necesarias de la información presentada en la documentación, aplicándose las medidas correspondientes en caso de ser inexactos o incompletos.
<u>Balorazino-irizpideak</u>	<u>Criterios de valoración</u>
1. Erizpide bakotxari jagokon dirulaguntza zehazteko, koefiziente sistema bat ezarriko da. Hiru bloke banatuko dira, eta bakotxak gehienezko kopuru bat eukiko dau ezarrita. Bloke bakotxari koefiziente indibidualak aplikatu ostean, azken batuketan ateraten dana izango da entidade bakotxari diruz-lagunduko jakon diru kopurua.	1. Los criterios por los que se guiará la concesión de las distintas cantidades fijan un sistema de coeficientes. Se dividirán en tres bloques, teniendo, cada uno de ellos, una cantidad máxima asignada. Tras la aplicación de los coeficientes individuales en cada uno de los bloques, la suma final corresponderá al valor económico a subvencionar a cada entidad.
2. Erizpideak:	2. Criterios:
A. Kirolariak eta teknikari-taldea; talde bakotxari aparteko ebaluazinoa egingo jako.	A. Características de la entidad: Deportistas y cuadro técnico, valorándose de forma individual en cada equipo:
Mungian erroldatuta dan jokalaria/tek-nikaria; eta horren ganera, kirol modalidade berean talde bat baino gehiago egon ezkerro, eurotatik talderik zaharreneko kidea dana: +0,2	Jugador/Técnico empadronado en Mungia y perteneciente al Club más antiguo en caso de varios clubs en la misma modalidad deportiva: +0,2
Mungian erroldatuta dan jokalaria/tek-nikaria; eta horren ganera, kirol modalidade berean	Jugador/Técnico empadronado en Mungia y perteneciente al Club nuevo en caso de existir

talde bat baino gehiago egon ezkerro, eurotatik talderik zaharrenkoa ez dan talde bateko kidea dana: +0,1	uno más antiguo en la misma modalidad deportiva: +0,1
Mungialdean errolatuta dan jokalaria/teknikaria; eta horren ganera, kirol modalidade berean talde bat baino gehiago egon ezkerro, eurotatik talderik zaharreneko kidea dana: +0,1	Jugador/Técnico empadronado en Mungialdea y perteneciente al Club más antiguo en caso de varios clubs en la misma modalidad deportiva: +0,1
Mungialdean errolatuta dan jokalaria/teknikaria; eta horren ganera, kirol modalidade berean talde bat baino gehiago egon ezkerro, eurotatik talderik zaharrenkoa ez dan talde bateko kidea danean: +0,05	Jugador/Técnico empadronado en Mungialdea y perteneciente al Club nuevo en caso de existir uno más antiguo en la misma modalidad deportiva: +0,05
Mungia ez dan beste herri batean errolatuta dan jokalaria/teknikaria; eta horren ganera, kirol modalidade berean talde bat baino gehiago egon ezkerro, eurotatik talderik zaharreneko kidea danean: +0,05	Jugador/Técnico empadronado en otro municipio y perteneciente al Club más antiguo en caso de varios clubs en la misma modalidad deportiva: +0,05
Mungia ez dan beste herri batean errolatuta dan jokalaria/teknikaria; eta horren ganera, kirol modalidade berean talde bat baino gehiago egon ezkerro, eurotatik talderik zaharrenkoa ez dan talde bateko kidea danean: +0,025	Jugador/Técnico empadronado en otro municipio y perteneciente al Club nuevo en caso de existir uno más antiguo en la misma modalidad deportiva: +0,025
Taldeko kide aktiboa (federazino-fitxarik ez daukan jokalaria edota lehiaketan parte hartzen ez dauena): +0,05. Taldeko kide aktibotzat hartzen da urtearen barruan kirol jarduera jarraitua egin eta parte hartzen dauen jarduerotan bere taldearen ordezkari moduan egiten dauenean.	Miembro activo del Club (jugador sin ficha federativa y/o que no compite): +0,05. Se entiende como miembro activo del Club a toda persona que mantiene una actividad deportiva anual continuada, representando a la entidad deportiva a la que pertenece en aquellas pruebas en las que ésta toma parte.
Puntuazio gehigarria egongo da ezintasunen bat egiaztatzen daben jokalarientzat (ezintasun hori txosten baten bidez egiaztatu beharko dabe): +0,1	Puntuación adicional para aquel jugador que presente algún tipo de discapacidad y así lo confirme el consiguiente informe: +0,1
Andrazkoen taldeak: +0,8 (15 jokalaria baino gehiago) edo portzentaia.	Equipo femenino: +0,8 (con más de 15 jugadoras), o porcentaje.
Puntuazio gehigarria egongo da Zuzendaritza Batzordean parte hartzen dabezan emakumeentzat: +0,1 pertsonako.	Puntuación adicional por la participación de mujeres en la Junta Directiva: +0,1 por persona.
Euskara Kirola programarako aukeratzan dan taldea: +0,4	Equipo elegido para el programa Euskara Kirola: +0,4
Bere jarduera orokorrerako Mungian eskuragarri ez dauden azpiegitura espezifikokoak behar dituen erakundea: +0,2	Entidad que, para su actividad general, requiera infraestructuras específicas no disponibles en Mungia: +0,2
B. Kirol edo kultura arloko herriko beste jarduera berezi batzuetan; kasurako:	B. Actividades extraordinarias de tipo deportivo o cultural en el municipio:
Udalerrirako interesgarri diran jarduerak: bultzatzailea +1,5 ; bolondrezko laguntzailea eta parte-hartzailea + 0,3	Por cada actividad participativa de interés para el municipio: promotor, +5,0; colaborador voluntario y participante, +1,0
Kirola sustatzea adin txikikoen artean: +0,5. Koefiziente hori aplikatuko jake 16 eta 17 urte bitarteko gazteen artean kirola sustatzen daben taldeei, udalerriko eskola barruko kirol jardueretan kirol modalidade hori praktikatzeko erarik ez daukienean.	Fomento del deporte en jóvenes: +0,5. Se aplicará el coeficiente a aquellas entidades deportivas que fomenten el deporte entre jóvenes con edades comprendidas entre 16 y 17 años y que no tengan posibilidad de practicar esa modalidad deportiva en los programas de deporte escolar en el ámbito del municipio.

Udaleko ikastetxeetan kirola sustatzeko programa bereziak garatzea: +0,5. Koefiziente hori aplikatuko jake Udaleko ikastetxeetan kirola sustatzeko programa bereziak garatzen dabezan kirol-taldeei; hau da, monitoreak jarri, materiala eskaini edo kirol talde horrek egiten dituan beste ekarri batzuk.	Desarrollo de programas específicos para el fomento del deporte en centros escolares del municipio: +0,5. Se aplicará el coeficiente a aquellas entidades deportivas que fomenten el deporte en los centros escolares mediante el desarrollo de programas específicos, aportación de monitorado, material u otras aportaciones de las que se hace cargo la propia entidad deportiva. El programa deberá estar activo como mínimo un trimestre.
C. Lizentzia federatibo indibidualetarako gastuak:	C. Gastos en concepto de licencias federativas individuales:
Kontzeptu honetarako esleitu dan kantidadea kontuan hartuta, eskatzen dauen talde bakotxari jagokon kantidadearen kalkulua egingo da, kontuan izanda zenbat gastatu dan kirolari bakotxak eta kuadru teknikoak urteko jarduera ofizialetarako federazino-lizentzietan.	Teniendo en cuenta la cantidad asignada para este concepto, se realizará el cálculo de lo correspondiente a cada entidad solicitante en función de lo gastado por la tramitación de las licencias federativas anuales de participación en actividades oficiales de cada uno de los y las deportistas y cuadro técnico.
<u>Balorazino-irizpideen blokeen arabera esleitutako kopuruak</u>	<u>Cantidades asignadas según bloques de criterios de valoración.</u>
- Erakundearen ezaugarriak: 50.000 € - Erakundearen jarduerak: 5.000 € - Federazino-lizentzietako gastuak: 26.000 €	- Características de la entidad: 50.000 € - Actividades de la entidad: 5.000 € - Gastos por licencias federativas: 26.000 €
<u>Instrukzioa eta Epaimahai kalifikatzailea</u>	<u>Instrucción y tribunal calificador</u>
Ondokoak dira Epaimahai kalifikatzailea eratuko dabenak: Mungia Udalaren Kirol Saileko Zinegotzi eta Zuzendaria.	El Tribunal calificador estará formado por la Concejala y el Director del Departamento de Deporte del Ayuntamiento de Mungia.
Eskariak aurkezteko epea amaitu ostean, Epaimahai Kalifikatzailea eratuko da. Epaimahaiak ahalmena izango dau diru-laguntzak emateko prozeduretan gertatzen diran gorabeherak eta erreklamazioak ebazteko, egokitzen jotzen dituan aurrekariak eta txostenak eskatzeko, eskabideak oinarrien arabera ebaluatzeko eta organo eskudunari emakida proposamenak bialtzeko, beti bere, diru-laguntzen onuradunak eta laguntzetarako proposatutako kopurua adierazota.	Una vez finalizado el plazo de presentación de solicitudes, se constituirá el Tribunal Calificador. Tiene facultades para resolver cuantas incidencias y reclamaciones se planteen durante el procedimiento de concesión, pedir cuantos antecedentes o informes estime pertinentes, evaluar las solicitudes según las bases y emitir propuesta de concesión al órgano competente para resolver, expresando las solicitudes receptoras de las subvenciones y la cuantía propuesta de las mismas.
Ebazpen proposamena era arrazoituan egingo da, Epaimahai Kalifikatzailearen aktan egongo da jasota eta eskatzaile bakotxari emon jakozan meritu zehatzak argituko ditu.	La propuesta de resolución, que se efectuará de forma motivada, y constará en acta del Tribunal Calificador, contendrá la evaluación de los méritos específicos de cada aspirante.
Ez da entzunaldirik eskainiko interesdunek emondako alegazio eta frogetatik aparteko gertakariak edo frogarik ez dagoanean prozeduran.	No se precisará de trámite de audiencia cuando no figuren en el procedimiento ni sean tenidos en cuenta otros hechos ni otras alegaciones y pruebas que las aducidas por las personas interesadas.
<u>Beste diru-laguntza batzukazko bateragarritasuna</u>	<u>Compatibilidad con otras subvenciones</u>

Diru-laguntzen kopurua (ez bakarrik ez beste diru-laguntza batzukaz batuta guztira ateraten dana) ezin izango da inoiz izan diruz laguntzen dan jardueraren kostea baino altuagoa.	El importe de las subvenciones en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones o ayudas, supere el coste de la actividad subvencionada.
<u>Ebazpena</u>	<u>Resolución</u>
Mungiako Udaleko Ekonomia eta Finantzen Arlokolo zinegotzia da ebazpena emoteko eskumena daukan organoa. Ebazpen horretan ondokoak azalduko dira: dirulaguntzea emoten jaken eskatzaileen zerrrendea eta zenbatekoak; baita ezezkoa emoten jaken ganerako eskariak bere, holangorik egon ezkerro..	El órgano competente para resolver será el o la Concejala responsable del Área económica y de finanzas del Ayuntamiento de Mungia. Dicha resolución contendrá la relación de solicitantes a quienes se concede la subvención, con expresión de su cuantía, así como la desestimación del resto de las solicitudes, en su caso.
Ebazpena emoteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, eskariak aurkezteko epea amaitzen danetik gora. Ebazpenaren jakinarazpena 10 eguneko epearen barruan egingo da, eta legez bidezkoak diran baliabideak azalduko dira bertan.	El plazo máximo para resolver será de tres meses, y comenzará a computarse desde la finalización del plazo de presentación de solicitudes. La notificación de la resolución se efectuará en el plazo de 10 días, expresando los recursos legalmente procedentes.
<u>Diru-laguntza publikoen justifikazioa</u>	<u>Justificación de las subvenciones públicas</u>
60.000,00 €-tik beherako diru-laguntzetan “justifikazio kontu laburtua” aurkeztuko da, 38/2003 Legearen 75 artikuluan zehazten danari jarraituta.	Las subvenciones de importe inferior a 60.000,00 € se justificarán mediante la “cuenta justificativa simplificada” , regulada en el artículo 75 del Reglamento de la Ley 38/2003.
“Justifikazio kontu laburtu” horretan, gitxienetik, ondoko informazioa agertuko da:	Dicha “cuenta justificativa simplificada”, contendrá como mínimo, la siguiente información:
Dirulaguntza emoteko baldintzak bete dirala erakusten dauen jarduera-memoria; hor zehaztuko da Oinarri Arautzaileek ezartzen daben epearen barruan burututako ze jarduera dan diruz laguntzeko modukoa eta jarduerotan lortutako emaitzak zeintzuk izan diran.	Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades susceptibles de ser subvencionadas y realizadas durante el período definido en las Bases Reguladoras y de los resultados obtenidos en dichas actividades
Oinarri Arautzaileak ezarritako epearen barruan burutu dan jardueraren gastuen eta diru-sarreraren zerrenda sailkatua; hornitzailea eta dokumentua identifikatu egin beharko dira bertan, baita diru-kopurua, emisino-data eta, behar danean, ordaintze data bere. Horrez ganera, zehaztu egin beharko da jarduera horretan laguntzeko egon diran beste diru-laguntza batzuk, eta zehaztu egin beharko da diru-kopurua zein izan dan eta horren jatorria.	Una relación clasificada de todos los gastos e inversiones de la actividad realizada durante el periodo definido en las Bases Reguladoras, con identificación del acreedor y del documento, su importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de pago, así como detalle de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación del importe y su procedencia.
Diruz lagundu dan jardueragaz lotura zuzena daukien Catering, ordezkaritza, jateko eta antzeko arazoikaitik gasturik balego, justifikazioan ez da onartuko programa osoaren %10etik gorako diru-kopururik era horretako gastuetan.	En el caso que los gastos por atenciones, protocolo, catering, comidas y similares tengan relación directa con el programa y/o actividad subvencionado, no se admitirán en la justificación, que estos superen el 10% del coste del programa.
Pertsonal gastuak daukiezan dirulaguntza-eskarietan, langile horreen nomina edo ordainsarien ordainagiriak aurkeztu beharko	En el caso de solicitudes de subvenciones que incluyan gastos de personal deberán acompañarse las nóminas o recibos salariales correspondientes,

dira. Eta horreetan argi zehaztuta egon beharko dabe ondoko kontzeptuek: langilearen izena eta abizen biak, NAN zk., jagokon hilea zein dan, diru-kopuru gordina, deskontuak eta kopuru garbia eta Gizarte Segurantzaren kotizatu egin dala erakusten daben boletinak. Ondokoak bere aurkeztu behar dira: Nominen ordainketen egiaztagiria, Gizarte Segurantzaren kotizazioen egiaztagiria eta Pertsona Fisikoen Errenteari jagokozan diruen sarrerak egin dirala erakusten dauen egiaztagiria.	que deberán expresar claramente el nombre y los dos apellidos, DNI, el mes al que correspondan, señalándose la cuantía bruta, los descuentos que correspondan y el importe líquido, así como los boletines de cotización de la Seguridad Social. Deberá de adjuntarse justificante de pago de las nóminas, de las cotizaciones de la seguridad Social y del ingreso de las cantidades correspondientes al Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.
Ondokoak aurkeztu beharko dira diruz lagundu dan jarduera bakoitzeko: jarduera horri lotuta argitaratu diran esku-orri, kartel, liburu, bideo, CD eta antzekoen ale bana. Horreetan guztietan agertu beharko dau Mungia Udala logotipoak.	Deberá aportarse un ejemplar de cada uno de los folletos, carteles, libros, videos, CD-rom, etc. que se hayan editado con ocasión de las actividades subvencionadas, debiendo aparecer el logotipo de Mungia Udala en todos ellos.
Justifikazinoan aurkezten dan dokumentazio guztiak izan beharko dau diru-laguntza emoten dan ekitaldiaren data.	Toda la documentación justificativa presentada, habrá de estar fechada en el periodo para el que se conceda la subvención.
Emoten dauen organoak egiaztatu egingo ditu egiaztagiriak, diru-laguntza egoki erabili dala egiaztatzeko; eta horretarako, aztertu nahi dituan gastu egiaztagiri guztiak aurkeztu daizala eskatu ahal izango deutso onuradunari.	El órgano concedente comprobará los justificantes que estime oportunos y que permitan obtener evidencia razonable sobre la adecuada aplicación de la subvención, a cuyo fin podrá requerir a la parte beneficiaria la remisión de los justificantes de gasto seleccionados.
Legen edo Ordenantzan justifikatzeko ezarrita dagoana bete ezean, edo eskatzen dan baino era eskasagoan justifikatu ezker, Diru-laguntzak Arautzeko Udal Ordenantzan 25. artikuluan zehaztuta dagoanera joko da.	El incumplimiento de la obligación de justificación de la subvención en los términos establecidos en la Ley o en la Ordenanza, o la justificación insuficiente de la misma, llevará aparejado el reintegro en las condiciones previstas en el artículo 25 de la Ordenanza General Municipal Reguladora de Subvenciones.
Justifikazino hori Mungiako Udaleko Erregistroan aurkeztu beharko da indarrean dagoan aurrekontu-ekitaldiaren hurrengo urteko martxoaren 31 baino lehen.	Dicha justificación deberá presentarse en el Registro del Ayuntamiento de Mungia antes del 31 de marzo del año siguiente al del ejercicio presupuestario en vigor.
Aplikagarria dan araudia	<u>Normativa aplicable</u>
Diru-laguntzak emoteko prozeduran Diru-laguntzei buruzko zemendiaren 7ko 38/2003 Legean eta Diru-laguntzen ganeko Udal Ordenantzan ezarrita dagoanari jarraituko jako.	El procedimiento para la resolución de solicitudes se ajustará a lo regulado en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y en la Ordenanza General Municipal Reguladora de Subvenciones.